

Oñatiko Unibertsitatea 2000

Ikastaroaren nondik-norakoak

Aurtengo udan, 2000ko uztailaren 17tik 25era bitartean, Oñatin eta bigarren aldiz antolatu da Hezibidean diren Irakasle eta Hirugarren Zikloko Ikasleentzako Zuzenbideko Ikastaroa, «Oñatiko Unibertsitatea» izenarekin. Antolatu ere, Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariak (RIEVeK) antolatu du ikastaroa. Ekitaldi horretarako hurrengoan laguntza izan du: Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Sailarena, Hegoaldeko zein Iparraldeko unibertsitateetako Zuzenbide Fakultateena, *Eleria* aldizkariarena eta Oñatiko Soziologia Juridikoaren Nazioarteko Institutuarena. Era berean, Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerkuntzarako Sailburuordetza eta Oñatiko Udala lankide izan dira egitasmo horretan. Ikastaroaren zuzendari Gregorio Monreal Zia Nafarroako Unibertsitate Publikoaren katedraduna izan da eta idazkari, Roldán Jimeno Aranguren.

Ikastaroa Oñatin egin da. Eskolak, ordea, toki ezberdinetan eman dira: Oñatiko Unibertsitatean, Larraña Ikastegian eta Mondragón Unibertsitateko ETEOn. Ikastaroko irakasleak Zuzenbideko irakasleak izan dira gehienbat. Euren sorterriak ezberdinak izanik, ez da Espainiako Zuzenbidea bakarrik aztertu, ezpada Zuzenbidearen ikuspegi anizdunak agertu dira ikastaroan zehar, ikasleen ulerbidea aberastuz; ildo horretatik, irakasleen artean egon dira euskaldunak, kataluniarrak, espainiarrak, alemaniarrak, frantziarrak, ingelesak eta italiarrak.

Ikasleak ere Hegoaldeko unibertsitate guztietatik etorri dira (Euskal Herriko Unibertsitatetik, Deustuko Unibertsitatetik, Nafarroako Unibertsitatetik eta Nafarroako Unibertsitate Publikotik), baita bestelako unibertsitatetik ere (Carlos III.a Unibertsitatetik eta Pompeu Fabra Unibertsitatetik). Ikastaroak iraun duen bitartean, ikasleak HAEE/IVAPen Larraña Ikastegian bizi izan dira, barnetegian bezala. Modu horretara, hainbat jatorritako ikasleek elkar ezagutzeko aukera izan dute; arean bere, ikasleek ere irakasleekin harremanetan jartzeko modua eduki dute, eurekin bazkaldu zezaketena.

Ikastaroaren helburuei dagokienez, Zuzenbideko lizentziatu orok bere heziketan dituen hutsuneak bete nahi izan dira, batik bat, zientziako metodologia erabili eta dokumentuak bilatzean sor daitezkeen arazoak konpontzeko. Egun, arlo horiek ez dira jorratzen Zuzenbideko ikasketa planetan, planok sarri-askotan ikusalde positibistegia hartzen baitute abiapuntu. Ikastaroaren bigarren helburua izango litzateke Zuzenbidearen etorkizunari buruz hausnarketak egitea, hau da, Zuzenbideak jorratu beharko dituen autu berriak zehaztea edota hurrengo urteetan garrantzi handiagoa hartuko duten gaiak plazaratzea. Azken buruan, ikastaroaren helburu nagusia Zuzenbidearen oinarriko arazoen gainean hausnarketa egitea izan da.

Aurkezpena

Bederatzi egunetan, hamalau irakasle ospetsuk azaldu dituzte Zuzenbidearen nondik-norakoak, bost modulutan banatuta. Lehenengo egunean, ikastaroaren hasiera ekitaldia egin da Oñatiko Unibertsitateko *Aula Magnan*. Ekitaldi horretan parte hartu dute ikastaroaren zuzendariak, Gregorio Monrealek, Oñatiko Soziologia Juridikoaren Nazioarteko Institutuko zuzendariak, Pierre Guibentefek, Mondragón Unibertsitateko Errektore Gorenak, Javier Retegik, eta Oñatiko alkateak, Angel M^a Iturbek. Agintariek harrera beroa egin diete ikasleei, bai eta ikastaroan jardungo duten irakasleei ere.

Zuzenbidea zer den

Behin ikastaroa aurkeztu eta gero, lehenengo moduluaren arduraduna Zuzenbideko Filosofiaren irakaslea izan da, hots, Manuel Atienza, Alacanteko Unibertsitateko katedraduna. Atienza irakasleak Zuzenbideari buruzko azterketa sakona egin du, Zuzenbidearen kontzeptua eta ezaugarri nagusiak azaltzeko asmoz. Zuzenbideak izaera konplexua du eta ezin daiteke kategoria bakar batean kokatu. Zuzenbidea arauari, moralari eta botereari lotzen bazaio ere, ezin daiteke osorik azaldu kontzeptu horietariko baten bidez. Bestela esanda, Zuzenbidea araua da, baina moralaren eta boterearen agerpena ere bada.

Hori guztia dela-eta, Atienza irakaslearen aburuz, Zuzenbidearen kontzeptuak malgua izan behar du, bere edukia etengabe aldatzen delako eta uneoro gizarte aldakorren beharretara egokitu nahi delako. Ildo horretatik, mende hasierako moralak aldatu den bezala, Zuzenbidea ere aldatu egin da; egungo Zuzenbideak, ondorioz, hitzarmenezko izaera izango luke, eta unean uneko egoeretara egokituko litzateke. Ulerbidez, hirurogeiko hamarkadatik aurrera, Ekonomiaren oinarriko kontzeptuak sartu dira arian-arian Zuzenbidearen muinean; hariari segiz, Zuzenbideak merkatuaren logika bereganatu du, eragingarritasuna kontzeptu juridiko bihurtuz. Modu horretara, arau eragingarriak bakarrik iraun dezake eta eragingarritasunik gabekoa ezereztu egiten da.

Laburbilduz, Atienza irakaslearentzat, unean uneko gizarteak, inguruabarrak aintzat hartuta, Zuzenbidearen kontzeptua eman dezake, gizarte-hitzarmenaren bidez. Hortaz, Zuzenbidearen definizioa ezin daiteke kategoria batean sartu eta, egun, Zuzenbidea argudioak egiteko edo argudioekin konbentzitzeko tresna izango litzateke, gehienbat.

Ikerketa juridikoa eta Internet

Bigarren modulua Jorge Páez jaunak eman du. Páez jauna Auzitegi Goreneko aholkulari informatikoa dugu, baina hainbat urtez Consejo Superior de Investigaciones Científicas-en (CSIC-en) lan egin du, CSICeko CINDOC (Centro de Investigación y Documentación Científica) izenekoan, alegia. Berorrek, dokumentazio juridikoa bilatu edo erabiltzeko, informatikak duen garrantziari buruz hitz egin du. Páez jaunak azpimarratu nahi izan du Interneten zeregin nabarmena, beste baliabide juridiko bat den aldetik.

Informatika garatu ahala, informazioa jaso eta lantzeko ohiko bideak aldatu dira. Horrek ikerketa lanak egiteko ikusmolde berria ekarri du, euskarri berriak eta orain arte ezezagunak ziren lan egiteko moduak erabiliz. Horietariko bat da Internet. Internetek informazioa nazioartean zabaltzeko aukera eman du. Izan ere, Oñatiko

web-gune batean dagoena kontsulta dezake Australiako internautak, etxetik mugitu gabe. Aukera hori aurrerapen izugarria izan daiteke, herrien arteko distantzia gaindizten delako.

Badago alde txarra ere, ikuspegi juridikotik begiratuta bederen. Estatu bakoitzak bere antolamendu juridikoa dauka eta bere antolamendu juridikoak ere estatuaren muga fisiko berberak ditu; Internetek, ostera, ez du mugarik. Adibide batek hobeto erakuts dezake egungo egoera. Gipuzkoako Aldundiak ezin dio Balio Erantsiaren gaineko Zerga eskatu EEBBetako idazle bati, bere liburua Internet-en bidez saltzen duenean.

Bestalde, informatika ezinbesteko tresna bihurtu da ikerketa juridikoak egiteko. Datu baseak sortu dira Zuzenbideko ikertzailearen mesederako, beharrezko datuak eskuragarri izateko. Bestela esanda, gai juridiko bati buruzko legeria, jurisprudentzia edota bibliografia euskarri informatikoan ageri da eta segundo gutxitan eskura daiteke. Orain arte, datu baseen euskarria *CD-Roma* izan da; geroari begira, ostera, datu base horiek Interneten jarriko dira eta norbere ordenagailutik kontsultatuko dira.

Azalpenen ondoren, ikasleek ordenagailuak erabili dituzte Internetetik nabigatzeko Páez jaunaren gidaritzapean. Zuzenbidearekin zuzeneko zerikusia duten web-guneetara jo dute, hau da, herri administrazioen web-guneetara, organismo publiko eta auzitegienetara, Europar Batasuneko web-guneetara, Zuzenbide arloko argitaletxeetara web-guneetara eta bestelako web-gune juridikoetara.

Zuzenbideko ikasketak gure inguruko herrialdeetan

Hirugarren modulua Juan Churrucak, Deustuko Unibertsitateko katedradunak, koordinatu du. Lau irakaslek hartu dute parte modulu horretan; bakoitzak beraren herrialdea ordezkatu eta azaldu du nolakoa den Zuzenbidearen irakaskuntza bere herrialdeko Zuzenbide fakultateetan. Frantziako ordezkaria izan da Maite Lafourcade, Paueko eta Pays de l'Adour-eko Unibertsitateko irakaslea. Italiaren izenean, Ettore Dezza irakaslea etorri da, Paviako Unibertsitateetik. Alemania eta Austriako fakultateen eta Zuzenbide ikasketen egoera azaldu du Johannes Fest irakasleak, Bremengo Unibertsitatekoak. Azken buruan, Erresuma Batuko ordezkari Andrea Nollent irakaslea etorri da, Cambridge-ko Unibertsitatekoa.

Laurok erantzun behar izan diote aurretiaz prestatutako galdera-orriari. Galdera horien bidez, herrialde bakoitzean Zuzenbidearen ikasketak nola antolatu diren ikus daiteke eta, ondoren, zenbateko antza duten zehaztu. Modu horretara, Espainiako Zuzenbide fakultateekin alderatuta, Zuzenbidea irakasteko bestelako ereduak erakutsi dituzte, hau da, Zuzenbidea ikasteko ez dagoela eredu bakarra nabarmendu da. Oro har, herrialde horietan Zuzenbideko karrera laburragoa da, hiruzpalau urtekoa. Alemanian, esaterako, irakasgaiak gaindituta ere, Estatu mailako azterketa gogorra egin behar dute Lizentziatura lortzeko. Erresuma Batuan, Zuzenbideko titulua ez da beharrezkoa Zuzenbidean aritzeko. Horrez landa, herrialde horietan ezin daiteke abokatu gisa jardun lizentziatu eta berehala; kontrara, bi edo hiru urteko trebatzea amaitu behar da abokatua izan baino lehen.

Zuzenbidea, etorkizunari begira

Laugarren moduluan Zuzenbidearen joera nagusiak ekarri dira hizpidera. Zuzenbideko adar batzuk aztertu dira, hemendik urte batzuetara adar horietako gai

nagusiak zein izango diren azalduz. Goi mailako irakasleek, banan-banan, jorratu dituzte euren arloan bihar-etzi izan daitezkeen arazoak eta nabarmen daitezkeen esparruak. Konstituzio Zuzenbidearen etorkizunari buruz hitz egiteko ardura Luis López Guerra irakasleak izan du, hots, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko lehen-dakariordeak. Merkataritzako Zuzenbidearen ordezkari Andrés Recalde Llanos irakaslea izan da, Castello-ko Unibertsitateko katedraduna.

Hurrenik, Lan Zuzenbidearen geroa azaldu du Maria Emilia Casas irakasleak, Konstituzio Auzitegiko Magistratuak. Europar Erkidegoetako Zuzenbidearen nondik-norakoak argitzeko, Laurence Burgorgue irakaslea agertu da, Roueneko Unibertsitateko katedraduna. Administrazio Zuzenbidearen ordezkari, ostera, Luis Martin Rebollo irakaslea, Kantabriako Unibertsitatekoa, etorri da. Nazioarteko Zuzenbidearen etorkizuneko joerak José Antonio Corrientes irakasleak aurkeztu ditu, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren katedradunak, alegia. Zuzenbide zibilaren bihar-etziko ikuspegia Pablo Salvador Coderch irakasleak eman du, Pompeu Fabrako Unibertsitateko katedradunak, hain zuzen. Amaitzeko, Zigor Zuzenbidearen ardura Jesús María Silva Sánchez Pompeu Fabrako Unibertsitateko katedradunak hartu du.

Irakasle guztiak bat etorri dira Europar Batasunaren garrantzia nabarmentzean. Europar Batasunak esparru guztietan indarra hartuko du datozen urteotan, baita Zuzenbidean ere; horregatik, Europako Zuzenbide izeneko era daiteke eta herrialdeetara zabaldu. Horrek nahitaez ekarri beharko ditu babes eta berme neurri berriak administratu edo kontsumitzailearentzat. Antzeko arrazoiengatik, irakasleek munduaren globalizazioa ere azpimarratu dute.

Zuzenbidea eta euskara

Bosgarren moduluari dagokionez, mahai-ingurua antolatu da hizkuntzen gainean edo, zehatzago esateko, ikusi da hizkuntzen erabilera Zuzenbidearen ikasketetan eta ikerketetan. Mahai-inguruaren helburua ez da izan konponbidea ematea, ezpada arlo horretako partaideek bizitako esperientziak azaldu eta bihar-etzirako hausnarketak proposatzea.

Hegoaldeko unibertsitateek lagundutako ikastaroa izanik, Zuzenbide fakultate guztietan euskararen egoera zein den azpimarratu da; mahai-inguruan, gainera, ikasle guztiak hartu dute parte. Ildo horretatik, partaide batzuen esperientzia abiapuntu hartuta, Zuzenbide ikasketak osorik (hirugarren zikloa barne) euskaraz egin ote daitezkeen eztabaidatu da, eta euskarak arlo horretan izan ditzakeen zailtasunak agerrarazi dira. Egun, euskara estandarizazio bidean dabil, Euskaltzaindia euskara batuaren oinarriak ezartzen ari delako. Ikuspegi horretatik, hizkera juridikoak aintzat hartu behar ditu Euskaltzaindiaren arau berriak. Arazo terminologikoaz landa, euskarazko hizkera juridikoak badu bestelako arazorik ere, diskurtso juridikoaren eredu bila gabiltzalako une honetan. Bestela esanda, gure inguruko hizkuntzek diskurtso juridikoa eratu dute, hainbat mendetako bilakaeraren ostean; euskara, ordea, hasi berria da bide horretan.

Indarreko ikasketei dagokienez, Zuzenbidea euskaraz ikas daiteke Euskal Herriko Unibertsitatean eta Deustuko Unibertsitatean (Udako Euskal Unibertsitatea ahaztu gabe); dena den, behin lizentziatu gradua lortu eta doktore tesia euskaraz idatzi nahi izanez gero, zailtasun ugari aurkituko du irakasleak, ikerketa laneko agiri gehienak erdaraz egongo direlako eta tesiaren defentsarako epaimahaia irakasle euskaldunekin osatzea ia ezinezkoa izango zaiolako.

Bestelako jarduerak

Amaitzeko, aipatu beharrekoak dira eskolaz kanpoko jarduerak. Ikastaroak iraun duen bitartean, bestelako jarduerak egiteko aukera izan dute ikasle zein irakasleek. Modu horretara, ezin ahantz daitezke Arantzazura eginiko osteratxoa, Oñati ezagutze-ko bisita gidatua, eta Oñatiko Udalak Udaletxean bertan ikasle eta irakasleei eginiko harrera ofiziala. Aurrekoaz gain, asteburuan (larunbata eta igandean) Gernikako Batzar Nagusietara joan dira, bai eta Loiolako inguruetara ere.

Alberto Atxabal Rada